

Euskarazko webguneei dirulaguntzak emateko deialdia.

1.- Dirulaguntzaren xedea.

Irurako enpresa, merkataritza eta ostalaritzako edukiak euskaraz eta informazio teknologien bidez hedatzeko dirulaguntzak jasotzeko baldintzak arautzea, eta aipatutako alor horietako erakunde eskatzaileei gastuak murriztea, Irurako berezko hizkuntzak dagokion lekua izan dezan hain garrantzitsua den teknologia berrien esparru honetan.

Udalbatzak onartutako eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO, 2021-07-15) argitaratutako dirulaguntzen udal-ordenantzaren arabera emango da.

2.- Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak.

Dirulaguntza hauek emateko oinarri erregulatzailen 3. artikuluan finkatutakoak.

3.- Dirulaguntzaren zenbatekoa.

- Kontu izendapena: 1.0000.470.335.00.00.2026.
- 500 €

4.- Eskabideak eta dokumentazioa.

Dirulaguntza hauek emateko oinarri erregulatzailen 5. artikuluan finkatutakoak.

5.- Eskaerak non eta noiz aurkeztu.

Tokia: Irurako Udaleko erregistro elektronikoan (www.irura.eus webgunean, *ON-LINE TRAMITEAK*) edo udaletxeko harrera bulegoan (San Migel plaza - 20271 Irura).

Epea: 2026ko irailaren 30era arte

Errekurtsoak:

- Erabaki honen bitartez, bide administratiboari bukaera ematen zaio eta beronen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzien Donostiako epaitegian, bere jakinarazpena jaso ondorenean zenbatzen hasi eta BI HILABETEKO epean.
- Era berean, Birjarpeneko Errekurtsoa ere jarri ahal izango da udalean, hilabeteko epean jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Iruran, 2026eko uztailaren 13an.— Gorka Murua Macuso, alkatea